

Irlanderaren egoeraren dramatikotasuna zein nolakoa den argitzen digu Pat Ricek gainbegirada historiakoa egiten duen artikulu honetan.

Gobernu Britainarraren zapalkuntza Ipar Irlandan.

Hego Irlandan, berriz, hizkuntzaren inguruan hipokrisi galanta. Eta hori guztia gutxi balitz, historialarien belaunaldi oso bat (60-70)

Irlandaren kolonizazioari buruzko bertsio "rebeisionista" idazten. Hala eta guztiz ere, han-hemenka ekimen herritarren berpizkundea eta joera "anti-rebeisionista"ren indartzea gertatzen ari dira.

Horrek guztiak ematen dio egileari etorkizuna itzaropenez begiratu eta hizkuntz berreskurapenean sinesteko konfidantza

IRLANDERA GAUR EGUN: DIMENTSIO HERRIKOIA

Pat Rice

Itzultzailea: Joseba Ossa

Azken 2.000 urteotan irlandarren gehiengo osoa irlandera (Gaeilge) mintzatu izan da batik bat. Azken 150 urteetan bihurtu da gutxiengo baten hizkuntza Irlandan. Irlanderaren beherakada inperialismo ingelesaren ondorio zuzena izan da lurralde horretan. 1845-1850eko Gose-te Handiaren garaietara arte irlandera mintzo zirenek 8 milioiko biztanlegoaren gehiengoa osatzen zuten, baina nekazari txiroak ziren, inolako botere edo influentziarik gabeak. XVIII. mendearen amaiera baino lehen jadanik katolikoek —biztanlegoaren gehiengo osoa izan arren— Irlandako lurren %5a besterik ez zuten beren eskuetan. Kolono britainiarren erlijioa protestantismoa zen.

Bost urtetan milioi bat irlandar hil ziren gosez (Irlandako portuetatik irlandarrez betetako untziak atzerrirantz ateratzen ziren bitartean, nahiz eta Erregin Britainiarrak 5 liberako donazio bat egin gosetearen aurka!) eta beste milioi batek atzerrira jo zuen, itzulerarik gabeko bidaiarekin. Konparaketa bat egiteko espainiar estatua hartzen badugu, horrek esan nahi du gaur egun 5 milioi espainiar gosez hilgo lirak tekeela, eta beste bost milioi emigratu egingo luketela. Gosetearen ondorengo 50 urteetan Irlandako biztanle kopurua erdira jaitsi zen¹. Irlanderaz mintzo zirenak, hau da, biztanlerik txiroenak izan ziren eraso bikoitz horren ondorioz larrienak jasan zituztenak.

Nazionalismo irlandar iraultzaileak² (nazionalismo konstituzionala-

ren aurkakoa) argi eta garbi onartu zuen hizkuntzak berreraikuntza nazionalean duen garrantzia, eta Pádraig Pearse-k (1916an Dublingo matxinadaren buru zenak) esan zuen Liga Gaelikoa (1893) fundatzeak nahitaezko bihurtu zuela iraultza irlandarra, baina kontua da 1921ean estatu berria ezarri zenean irlandera mintzo zirenak 250.000 inguru besterik ez zirela (biztanlegoaren %5a, gutxi gora-behera). Gainera, gehienak pertsona zaharrak ziren, eta beren bizitokietan belaunaldi gazteek ez zuten jadanik irlandera hitz egiten.

1900 eta 1920 bitartean independentziaren aldeko lanean ari ziren askoren bizitza sozio-politikoaren elementu garrantzitsu bat irlandera ikastea bazen ere, jende gehienarentzat horrek esan nahi zuen astean behin ikasten zutela irlandera; irakaslea, berriz, aste osoan zehar bate-tik bestera ibiltzen zen, bizikletaz, eskolak ematen.

Jende gehienak uste zuen, noski, behin estatu berria sortu ondoren irlandera berreskuratzeko behar ziren neurriak hartuko zirela, eta zerbait egin zen, batez ere 20ko hamarkadatik 50ekora bitartean. Baina garai hartan ez zegoen halako hizkuntz berreskurapen handia lortu zuen herri bat bera ere Irlandaz kanpo, eta beraz, adibiderik edo erreferentziarik ez zegoenez, ziur aski lanaren zailtasuna ez zen ondo neur-tu, gutxietsi baizik. Ahaleginik handienak eskoletan egin ziren, nahiz eta independentziaren ondorengo 30 urteetan inoiz ez zen lortu haur gehienek beren hezkuntzaren erdia baino gehiago irlanderaz burutzea. Lan hori are zailago bihurtu zen independentzia lortu ondoren estatu jaioberrian 1922 eta 1923 bitartean izandako Gerra Zibilak eragindako zatiketen ondorioz. Estatu berriak arazo ekonomikoak ere bazituen, noski, baina ez ziren inoiz ezarri hizkuntzaren erabilerarako behar ziren azpiegiturak. Estatuko irratia oso gutxi emititzen zuen irlandera, eta funtzionarioek hizkuntz gaitasun azterketak egin behar bazituzten ere, ez zen erraza izaten Estatuko zerbitzuak irlandera eskuratzea. Funtzionario askoren jarrera nolakoa zen adierazten duen esaldi interesgarri bat badago: «*Bhí Gaeilge again uair aimhain but I have a good job now*» (Lehen zatia irlandera dago eta honela itzul daiteke: «*Nire bizitzako garai batean banekien irlandera*»; bigarrenak, ingelesez, honela dio: «*baina orain lan ona daukat*»).

50eko hamarkadatik aurrera estatua bere jatorrizko hizkuntz helburuei uko egiten hasi zen. Hori oso garbi geratu zen egoera hura hurbiletik jarraitzen zutenentzat³, nahiz eta erretorika ofizialak lehenean segitzen zuten.

50eko hamarkadaren erdialdetik 70ekoaren erdialdera arte oso aldi txa-

1) Irlandak ez du harez gero Go-sete aurreko mailetara itzultzea lortu. Gaur egun 5 milioi biztanle besterik ez du (3,5 milioi hegoaldean, eta 1,5 milioi Ipar Irlandan).

2) Ikus Fr. Thomas O'Fiaich-en (gerora O'Fiaich Kardenal izango zenaren) saiakera «*A View of the Irish language*» (Irlanderaren egoeraren ikuspegi orokorra ematen duen liburua).

3) Ikus Liam Andrew-ren «*Black Paper on the Teaching of Irish*» (Irlanderaren Irakaskuntzaren Liburu Beltza), 1970ean argitaratua.

«Historialarien belaunaldi berri bat Irlandaren historiaren bertsio "rebisionista" idazten hasi zen: eraso inperialista ez zen jadanik eraso inperialista deitzen; kolonizazioa, berriz, bapatean "ezarpen" bihurtu zen»

rra izan zen irlandera irakaskuntzarentzat. Telebista kate «nazional» berri bat emititzen hasi zen, eta astean ordu gutxi batzuk besterik ez zuen erabiltzen ofizialki «lehen hizkuntza nazionala» deitzen zen hori. Irlandera irakasten zuten eskolak bata bestearen atzean amore ematen hasi ziren, alde batetik gobernuaren politika orokorragatik, eta bestetik, zehazkiago, irlandera argitaraturiko testuliburuaren eskasia edo urritasunagatik. 1972an, ofizialki Gaeltacht izendaturiko zonak alde batera utziz gero, (hau da, mendebaldeko kostaldean irlandera hitzunen gune txiki horietatik kanpo —ofizialki 80.000 pertsona, baina errealitatean agian horren erdia baino gutxiago bizi diren lekuez kanpo) dena irlandera irakasten duten oso eskola gutxi daude: 11 oinarriko eskola, eta beste 5 maila altuagokoak.

Garai berebean (50eko erdialdetik 70eko erdialdera) beste helburu nazional handienetako bat, hau da, Irlandaren batasuna berreskuratzea, erretorika ofizial hutsean geratu zen. Historialarien belaunaldi berri bat Irlandaren historiaren bertsio «rebisionista» idazten hasi zen: eraso inperialista ez zen jadanik eraso inperialista deitzen; kolonizazioa, berriz, bat batean «ezarpen» bihurtu zen.

Baina 60ko hamarkadaren amaieran Ipar Irlandar nazionalistak britainiar «estatutxo» zatitu den Ipar Irlandan eskubide zibilak eskatzen hasi zirenean, eta ia erantzun bakartzat errepresioa jaso zutenean, gauzak aldatu egin ziren, eta dinamika berri bat sortu zen.

Britainiarrek bitan zatitu zuten Irlanda 1921ean, irlandarren gehiengo zabalak adierazitako borondatearen aurka. Horren ondoren, irlaren ipar ekialdean (britainiarren menpe zegoen lurretan) nazionalistak diskriminatuta zeuden: etxebizitza, lana eta botoa emateko eskubideari dagokienez unionistek baino egoera txarragoan zeukaten. Bestalde, eskubide kulturei dagokienez ere zeharo baztertuta zeuden, zeren irlandera hizkuntza arrotz gisa irakats bazitekeen ere (frantziara, gaztelera edo alemanera bezalaxe), irlandera-hiztunek ez zuten eskubiderik (eta esan beharra dago nazionalistek, oro har, irlandera beren hizkuntza nazionaltzat hartzen dutela, bai hitz egiten dutenek, eta ez dutenek ere). Irlandera legez kanpo geratu zen epaitegietan, funtzionarioen lanean, udaletan, estatuarekin zerikusirik zuten agentzietan, irratian eta telebistan. Kaleen izenen bertsio ingelesaren ondoan irlandera ipintzea ilegala zen (eta oraindik gauzak ez dira aldatu maila horretan), eta 1970ean irlandera hitzunek gobernuari dirulaguntza eskatu ziotenean irlandera oinarriko eskola bat zabaltzeko (ez zen sekular halakorik izan Ipar Irlandan, noski), erantzun gogorra jaso zuten: dirurik ez emateaz gain, gobernuak esan zuen horrelako esko-

larik zabalduz gero, gurasoak atxilotu egingo lituzketela, beren umeak eskolara joango ez balira bezalaxe hartuko bailituzkete.

Eskola zabaldu nahi zutenak irlandera mintzo zirenen «gaeltacht» txiki bateko kide ziren, bizitzera Belfastera joandakoak, alegia. Zortzi bikote gazte ziren, eta guztiek bere kasa ikasi zuten irlandera (zeren britainiarrek okupaturiko sei probintzietan ez dago jatorrizko gaeltacht zonarik, guztietan galdu baitzen irlandera mintzatzeko tradizioa). Guztien artean kooperatiba bat eratu zuten, lurra erosi, beren etxeak eraiki, eta irlandera mintzo zen komunitate txiki bat osatu zuten Belfasteko mendebaldeko muga inguruan. Gobernuaren mehatxuak hor egon arren, oinarritzko eskola 1971ko irailean zabaldu zuten, 5 urteko bederatzu umerekin (7 ume beren «gaeltacht» txikitik zetozen, eta beste biak inguruko familia irlandarretatik).

1971n gobernu britainiarrak odolez estaliriko matxinada bat zuen bere eskuetan Ipar Irlandan, eta ez zituen mehatxuetan esan bezala eskola berriko gurasoak atxilotu. Hala eta guztiz ere, irlandera etxean ikasia zuten umeengan oinarrituriko eskolak oso indar gutxi zeukan ia erabat ingelesez bizi zen hiri batean. 1977an zertxobait handiagoa zen, baina ez asko, 30 ikasle (eta bi irakasle!) besterik ez baitzuten.

Baina 1978an eskola bereko gurasoek irlandera haurtzaindegi bat zabaldu zuten. Irlandera ez zekiten haurrak hartzeko prestatuta zegoen, eta bi urtez (3tik 5era) hezitzen zituen haurrak. Horrela, bi urteko aldi horren ondoren, haurrak «Bunscoil» edo irlandera oinarritzko eskolan sartzeko prest zeuden. Aldaketa izugarria zen hori. Irlandera ez zekiten guraso langileak (batzuk preso politikoak ziren garai hartan, eta espetxean hasi ziren irlandera ikasten) beren umeak haurtzaindegi irlandarretara bidaltzen zituzten. Zortzi urteren buruan haurtzaindegian 120 ume zeuden, eta oinarritzko eskolan 150 ikasle (eta zazpi irakasle!).

Gobernu britainiarrak 13 urte eman zituen eskolari dirurik eman gabe, baina azkenean, irlandar errepublikanismoaren aurka «buru-belarri» borrokan egon arren, 1984ean diru piska bat ematen hasi zen.

1980ra arte ez zen beste irlandera eskolarik zabaldu Sei Probintzietan, baina gaur egun, okupazio britainiarpean dagoen Ipar Irlandan, zortzi oinarritzko eskola daude, bigarren hezkuntzako bi, eta 21 haurtzaindegi. 31 zentro horietatik hiruk besterik ez dute jasotzen estatuen dirulaguntza, nahiz eta estatu horretan hezkuntza dohainik dela suposatzen den. Irlanda osoa Ingalaterraren menpe zegoen ga-

«Jende gehienak uste zuen, noski, behin estatu berria sortu ondoren irlandera berreskuratzeko behar ziren neurriak hartuko zirela, eta zerbait egin zen, batez ere 20ko hamarkadatik 50ekora bitartean. Baina garai hartan ez zegoen halako hizkuntz berreskurapen handia lortu zuen herri bat bera ere Irlandaz kanpo, eta beraz, adibiderik edo erreferentziarik ez zegoenez, ziur aski lanaren zailtasuna ez zen ondo neurtu, gutxietsi baidizik»

raian eta populazioaren gehiengoa oraindik irlandez mintzo zenean, ingelesek izugarri interes handia zuten «eskola nazionala»ren sistema ezartzeko (erabat ingelesez irakasten zen, noski, eta Padraig Pearse-k idatzitako saiakera ospetsu batean «*The Murder Machine*-Hiltzeko Makina» izena eman zion sistema horri). Eskola horren helburua irlandarrek anglikartzea eta «desnazionalizatzea» zen. Neurri handi batean lortu zuten Irlanda «desgaelizatzea», baina ezin izan zuten irlandar estatuaren jaiotza oztopatu. Sei Probintzietan, ordea, britainiarrek hezkuntza librearekiko izan duten jarrera oso bestelakoa izan da hezkuntzaren bidez jendea «birgaelizatu» nahi izan denean.

Zalantzarik gabe esan daiteke Ipar Irlandan okupazio britainiarraren aurkako borrokak eragin handia izan duela irlandar irakaskuntzaren gorakadan. Espetxeak hizkuntz akademia garrantzitsu izan dira, bai bertan askok irlandera ikasten zutelako, eta bai besteentzako eredu bihurtu zirelako. 70eko hamarkadaren amaieran espetxe sistemaren barruan estatus politikoaren alde burututako borrokan preso errepublikarrek elkarri irakastea lortu zuten, gela batetik bestera oihukatuz, eta ez liburu, ez boligrafo, ez paperik gabe, maiz kolpeak jasoz, eta arropa gisa manta bat besterik ez zutelarik. Espetxe sistemak beren nortasuna kendu nahi izan zienean presoek oso garbi ikusi zuten beren nortasunaren elementurik garrantzitsuena irlandera ikastea eta mintzatzea zela.

Kanpoan zeuden nazionalistek ikasgai horiek jaso zituzten, eta presoekin bat eginik, beraiek ere irlandera ikastea erabaki zuten, batez ere gose grebaren ondorioz Bobby Sands eta bere bederatzi «kamara-da» hil zirenean. Une batean, 80ko hamarkadan, Mendebaldeko Belfasten soilik, helduentzako 60 ikastaro zeuden eta agian kopuru hori gaur egun piska bat murriztago izan badaiteke ere, une honetan Sei Probintzietan irlandera bere mailarik altuenean dago, 1921ean estatu zatitua ezarri zenetik.

Bitartean, Irlandako beste lurretan ere onerako aldaketa batzuk gertatzen ari ziren. Langile xeheak konturatu zirenean bata bestearen ondorengo gobernuak hipokrisi handiz jokatzeko ari zirela hizkuntzaren sustapenaren inguruan, gai hori beren eskuetan hartzen hasi ziren, gobernuaren zain egon gabe. Gobernuaren garairik txarrean ere, hau da, «*Coláisté Ullmhucháin*» izeneko ikastetxeak itxi zituztenean (eta esan beharra dago ikastetxe horietan irlandar hiztun bikainak prestatzen zirela, maiz irlandera ama-hizkuntza zutenak, ongi prestatutako irakasle izateko), inkesta guztiek esaten zuten 26 probintzietako biztanleen gehiengoa irlandera indar handiagoz bultzatzearen alde zegoela. Lan-

gile-klaseko auzoetan —maiz gobernuak sortarazitako zailtasunak gaudituz— irlandera-azko haurtzaindegiak eta oinarriko eskolak ugaritzen hasi ziren. Gaeltacht-ean bertan eskubide zibilen aldeko mugimendu bat sortu zen, eta beste emaitzen artean erabat irlandera-azko emittitzen zuen irrati «pirata» bat eratu zen Conamara-n. Orain, Dublingo gobernuak, urteetan irlandera-azko irratiak sortzeari buruz hitz egiten ihardun ondoren (egia esan, batez ere irratiak sortzea zein zaila eta garestia litzatekeen esaten ibili ondoren), bapatean konturatu da «baietz», posible litzatekeela irlandera-azko irrati bat sortzea (arrazoia, noski, herriarengan dago, gobernuak kontrolatu ezin zuen irrati bat eratu zuelako). Irrati berria egunean bi orduz emittitzen hasi zen, eta hasieran ezin zen Irlandako leku askotan entzun, baina une honetan, 1995ean, egunean hamaika ordu t'erdiz aritzen da, eta F.M. kanalari esker Irlandako bazter guztietan entzun daiteke.

Goian aipatu dudana bezala, 1972an Gaeltacht-etik kanpo erabat irlandera-azko irakasten zuten eskolak 16 ziren Irlanda osoan (oinarriko eskolak 11, eta bigarren hezkuntzakoak 5). 1994ean oinarrikoak 90 dira, eta bigarrenekoak 23. Hau da, 22 urtetan gorakada %700ekoa izan da. Kasu guztietan ekimena herriarengandik sortu zen, eta ez gobernutik, nahiz eta gerora, lehenago edo beranduago, gai hori bere egiten eta «ordaintzen» hasi. Bitartean, eskola normaletan irlandera-azko irakaskuntza maila ia-ia eskandaluzkoa bihurtu da, eta horren erantzukizunik handiena gobernuaren gain dago.

Garbi dago hipokrisia galanta egon dela hizkuntzaren inguruan Hego Irlandan. Irratiarekin gertatu zena telebistarekin ere gertatu zen. Ingeleseko Telebista kanal «nazionala» ezarri zenetik 30 urte baino gehiago igaro dira, eta bigarren katea (hau ere ingelesez) duela 17 urte zabaldu zen; hala ere, oraindik ez dugu irlandera-azko telebistarik. Bi kanal ingelesaren artean guztira astean 5 orduz emittitzen dute ofizialki «lehen hizkuntza nazionala» deitzen den horretan. Hain zuzen, 70eko hamarkadan bigarren katea aireratzea planteatzen ari zirenean, irrati eta telebisten ardura zuen «Fine Gael» ministroak, hau da, Conor Cruise Ó Brien-ek egin nahi zuen gauza bakarra zera zen: BBC-2 Irlandan birtransmititzea gure bigarren kate gisa. Ideia horrek ez zuen aurrera egin, baina garbi adierazten du zein neurritan zeuden kolonizatuta zenbait pertsonen buruak eta pentsamoldeak.

Louis Marcus, Cork-eko irlandar judu eta idazle ohoretsuak (ingelesez idazten du) egindako salaketaren arabera, hizkuntzaren berreskurapenaren inguruko hipokrisia ez dago gobernuaren aldean soilik, baita hizkuntz erakunde bolondresengan ere. «Zergatik», galdetzen du be-

**«Louis Marcus,
Cork-eko irlandar
judutar eta idazle
ohoretsuak (ingele-
sez idazten du) egin-
dako salaketaren
arabera hizkuntzaren
berreskurapenaren
inguruko hipokrisia
ez dago gobernuaren
aldean soilik, baita
hizkuntz erakunde
bolondresengan ere»**

«Irlandera jakin arren ingeles hutsez mintzatzen ari diren horiek, onartu ala ez, oso aukera garbia egiten ari dira»

rak «ez dute gobernuak edo hizkuntz erakunde bolondresetikikerketa sakon bat bera ere egin Israelek hebraiera nola berreskuratu duen jakiteko?». Galdera ona da, eta erantzun bat eskatzen du!

Baina ez da nahikoa errua gobernuari aurpegiatzearekin. Inkesta guztietan Irlandan irlandera gehiago erabiltzea nahi duela esaten duen gehiengo horrek aukeratzen ditu azken finean gobernu guztiak. Agian gehiengo horrek esango du gobernuak lider izateko aukeratzen duela, baina zer egiten du gobernuak beraiek nahi ez duten bide bat hartzen duenean? Egoera horri aurre egiten al diote?

Irlandera jakin arren ingeles hutsez mintzatzen ari diren horiek —onartu ala ez— oso aukera garbia egiten ari dira. Hegoaldeko hezkuntz sistemak ez du huts egin jendea irlandera irakasteko orduan. Errol-dako datuen arabera 26 probintzietan milioitik gora dira irlanderaz ondo mintzo direla esaten dutenak. Hori autoestimazioa da, noski, eta gehiegikeriazko elementuak izan ditzake (estimazioak altuegiak izan daitezke), baina antza denez oso garbi dago 26 probintzia horietan biztanlegoaren %20ak gutxienez hitz egiten duela irlandera txukun samar. Gertakari garrantzitsuren bat gertatzen denean (greba, eskandalo politikoa, istripu larria edo aparteko kirol-gertakizunen bat) telebistako berri programetan ez dirudi arazo handirik dutenik irlandera mintzo den jendea bilatzeko elkarrizketak egitearren.

Arazorik larriena beste leku batean dago. Gauzak dauden bezala, asteburu oso bat igaro dezakezu Irlandako hiriburuan batere irlandera entzun gabe. Ez bazara klub edo ekitaldi jakin batzuetara joaten, agian ez duzu hitz bat bera ere entzungo gure jatorrizko hizkuntzan. Irlandera dakien jende guztia hizkuntza horretan mintzatuko balitz horretarako aukera duen bakoitzean, orduan egoera erabat aldatuko litzateke, eta leku guztietan entzungo genuke jendea irlandera mintzatzen. Une honetan jende gehiago dago irlandera mintzatzen dakiena azken 100 urteotako beste edozein unetan baino, baina beste inkesta batzuek adierazten dutenaren arabera, %5ak bakarrik hitz egiten du irlandera egunero (eta horrek ez du esan nahi egun osoan mintzatzen dutenik, noski!). Hala ere 200.000 pertsona inguru dira guztira, eta horrek atsedean piska bat eman beharko lieke pesimista edo ezkor absolutu direnei.

Egoera horren alderdi negatibo guztiak hor egon arren (eta irlandera Gaeltacht-ean bizi duen egoera kezagarria izanik ere) badirudi une honetan izpiritu edo jarrera berria eta hobe dagoela gai horren inguruan. Izan ere, izpiritu berri hori dela-eta, «Irish Times» aldizkaria,

duela gutxi argitaraturiko artikulu batzuetan «bigarren berpizkundeaz» mintzo zen.

Gaeltacht-eko biztanleek esaten didate interes berri bat somatzen hasi direla irlandearen inguruan. Eta horren adibide bat emango dut: Galway inguruan dagoen An Spideal-en, duela hiru urte gazteen artean batipat ingelesez mintzo ziren, moda zelako, baina orain ez. Orain modan dagoena irlandera hitz egitea da. «*Hik ez al dakik orain «in» dagoena irlandera hitz egitea dela, txiki?»* edo antzeko esaldiak al daketa horren adierazle dira.

Unibertsitate Nazionalan, oro har, irlandera ikasten ari diren ikasleen kopurua duela hiru urte baino hiru aldiz handiagoa da, eta 1993an Galway-ko Unibertsitatean zabaldutako egoitza (erabat irlanderaz bizi dena) gainezka dago: har ditzakeenak baino eskaera gehiago dauzka bertan sartzeko.

Dublinek erabat irlandera emititzen duen irrati bat dauka, eta jende asko dago bertan lanean: lanegun osoan iharduten duten hiru langile, praktiketan ari diren 14 enpleatu, eta 80 (!) bolondres. Langileak gazteak dira. Gehienek 20 eta 30 urte bitartean dituzte. Historialari «rebisionistak» eta komunikabideetan dituzten jarraitzaileak, dirudienek, neurri batean behintzat, iheska edo atzeraka dabilta. Eta garbi ikusten dena zera da: berriro ere irlandar izateaz harro sentitzen ari dela jendea, bai pop abeslariak edo rock taldeak, bai gure dantzariak, eta bai gure futbol selekzio «nazionala» (nahiz eta 26 probintzietakoa besterik ez izan).

Irlandar negozio-gizonei zuzenduriko astekari batek ere («The Sunday Business Post») joera «anti-rebisionista» hartu du bere lerro politikoan. Jarrera berri hori erabatekoa da irlandera dagokionez. Sasi-politikariak klitxe zaharrak berritzen saiatzen diren bitartean, adituek galdera bat planteatzen dute: «Zergatik?». Kulturaren globalizazioaren aurkako erreakzioa ote da? (Berdeak lehenengo aldiz beren presentzia sentiarazten ari dira hegoaldeko hauteskundeetan), edo norbaitek esan duen bezala irlandarrek Europako beste lurretara gehiago bidaiatzearen ondorio ote? (atzerrira joaten direnean beren nortasunaren gaia planteatu behar izaten dute, batez ere hizkuntzarena, hau da, irlandar gisa zein den beren hizkuntza). Agian hori baino sinpleagoa da: agian nekatu egin dira ukalezinezkoa ukatzeaz, britainiarren eskuhartzea nolabait onuragarria izan zela esateaz, eta agian horrek berriro planteaz die zer egin ote dien beraiei britainiar inperialismoak. Arrazoiak oso garbi ez badaude ere, aldaketak nabarmenak dira.

**«Hizkuntz berresku-
rapenean sinesteaz
gain, berreskurapen
hori beste fenomeno
zabalago baten parte
izan daitekeela uste
dut»**

Iparraldeari dagokionez, irlandera Eskolek joera nabarmena izan dute langileen (edo langabetuen) artean sorturiko fenomeno izateko, baina azterketa publikoetan Belfasteko lehen oinarrizko eskolak lorturiko emaitza onak erdi-klaseko guraso batzuk erakartzen hasi dira. Gainera, lehen eskola horri dagokionez, haurrak jaio bezain laster egiten dituzte umeen matrikulazio-eskaerak gurasoek.

Sei Probintzietako 5.000 haur joaten dira urtero uda partean antolatzen diren irlandera Eskolek ikastaroetara, muga inguruko Gaeltacht zone-tara, normalean Donegal-era. Bestalde, Ipar Irlandako zenbait protestante, bereziki North Antrim bezalako zona mistoetan bizi direnak, gau-ekoletara joaten dira irlandera ikastera. Preso unionista gutxi batzuek ere irlandera piska bat ikasi zuten espetxean zeuden bitartean, eta Belfasteko Shankill Road-eko, hau da, paramilitar unionistek indar handia duten zona bateko emakume protestante batzuk irlandera ikasten ari dira, irlandar hiztun guztien gozamenerako (iritzi politiko batekoak edo besteak izan arren).

Une honetan ezin daiteke esan zein egonkorra izango den irlandera-ren aldeko joeretara itzultze hori. Urte luzeetan zehar itxaron ondoren irlandera hutsezko telebista katea 1996aren bukaera baino lehen zabaltzeak indar moral izugarria eman beharko luke, batez ere Gaeltacht-en, besteak beste lanpostu berriak sortuko dituelako.

Datorren urtean hiru oinarrizko eskola berri zabalduko dira Ipar Irlandan, eta gutxi gora-behera 9 haurtzaindegi berri, denak herri txikietan. Hegoaldean ere antzeko zerbait gertatuko da. Irlandera irakasten duen eskola bat bera ere ez da itxiko. Une honetan trafiko guztia «norabide bakarrekoa» da. Nekazal inguruetan zailagoa da irlandera Eskolek zabaltzea, nahiz eta duela bi belaunaldi irlandera min-tzo ziren lekuetan izan. Horren arrazoia jende kopuru urriak eta isolamenduak jendeari adorea kentzen diola izan daiteke. Baina goian aipaturiko haurtzaindegi eta oinarrizko eskola berriak zabaltzeak, antza denez, mugimendu bat badagoela esan nahi du. Beraz, ikusiko dugu denborak eta giro berri honek zer ekartzen diguten.

Hori bakarrik ez. Irlandera bere kasa ikasi duten zenbait pertsona proiektu bat lantzen ari dira nekazal «Gaeltacht» txiki bat hasteko, agian mugaren bi aldeko lurra batera hartuz, beharbada South Armagh/North Louth-en arteko mugan bertan. Inguru horretan jatorrizko irlandera hiztun ugari bizi ziren XX. mendearen hasiera arte, eta horrelako «Gaeltacht» batek, beraz, esanahi sinboliko izugarria izan-go luke. Gure ustez laster desagertuko den muga bat zeharkatuko luke,

baina epe laburrean jadanik zera esan daiteke: horrekin batera enplegua sortzeko egiten den edozein ahaleginetik dirulaguntzak erakarri beharko lituzkeela, bai erregioarteko laguntzak Europar Batasunetik, eta bai «*International Fund for Ireland*» edo Irlandarako Nazioarteko Fundazioetik ere.

Helduentzako ikastaroei dagokienez, nik oso garbi daukat denbora gutxiegi eskaintzen zaiola hizkuntz eskurapenari, bai ikastaroak antolatzen dituzten taldeen aldetik⁴, eta bai ikasleen aldetik ere. Baina egoera horrek onera egin dezake giro berri honetan. Segurtasun osoz esan dezakeguna zera da: orain askoz errazagoa dela eguneroko bizitzaren zati garrantzitsu bat irlandaraz bizitzea (esate baterako duela 30 urte baino) West Belfast edo Derry bezalako lekuetan. Neure kasua aipatuko dut hemen, adibide gisa: etxean irlandaraz mintzo naiz, lantokian beste 15 irakaslerekin ere bai (irakaslegoaren %20 inguru gara, ingelesezko eskola batean), baita nire alderdikide askorekin ere, Sinn Féin-en. Batzuetan irlandera askorik ez dakiten lagunei deitzen diet; gurasoek erantzuten badute, maiz ingelesez hitz egin behar izaten dut, baina haurrek erantzuten badute, irlandaraz mintzatzen naiz, gehienak irlandarazko eskoletara joaten baitira. Hori bai aurrerapena!

Belfasteko mendebaldea bezalako leku batean irlandaraz mintzo direnak maiz elkar ezagutzen dute. Beraz, erosketak egiten ditudanean, edo taxi beltza (publikoa) hartzen dudanean, futbola ikustera joaten naizenean edota nire lan politikoagatik bisitak egiten ditudanean, sarritan irlandaraz hitz egiten dut.

Hurrengo 20 urteek garrantzia handia izango dute irlandararen etorkizunean. Nire iritziz XXI. mendean irlandarren duintasuna gehien indartuko duen faktorea hizkuntz berreskurapenaren lan zail horretan arrakasta garrantzitsu bat lortzea izan daiteke. Baikor naiz etorkizunari begira. Hizkuntz berreskurapenean sinesteaz gain, berreskurapen hori beste fenomeno zabalago baten parte izan daitekeela uste dut. Zenbait akademikoren aurrikuspenen arabera XXI. mendean milaka hizkuntz desagertuko dira. Adibide horrek garbi adierazten du zein zaila den giza arrazari buruzko aurrikuspen fidagarriak egitea. Agian XXI. mendean norabide aldaketa garrantzitsu bat gertatzen da gaur egun lemingen modura uniformitatearen ozeanorantz korritzen ari garen lasterketa honetan, eta irlandera -beste ehundaka hizkuntz eta kulturek bezalaxe- betirako uxatuko du amildegian erortzeko arriskua.

4) Talderik garrantzitsuena CONRADH NA GAELIGE (Liga Gaelikoa) da, nahiz eta orain ez duen mende honen hasierako 20 urteetan zeukan indar fresko eta berri hura. Ikastaroak antolatzen dituzten beste taldeak ere badira, besteak beste: GLÓR NA nGAEL (Irlandarren Ahotza), hau da, herri komunitateekin batera irlandera sustatzen duen taldea, CUMANN PUTHCHLEAS GAEL (Atlestismoaren Elkar-te Gaelikoa), Udaletako hezkuntz agintariak eta alderdi politiko bat, Sinn Féin.